

## “TIOTROPIO BROMUROA PRESKRIBITZEN HASTEAK”

### Braltus®

**Braltus®** (Tiotropio bromuroa) medikamentua duela gutxi merkaturatu da. Sendagai honek Spiriva® medikamentuaren osagai aktibo, askatutako dosi eta indikazio berdinak ditu.

Braltus® eta Spiriva® medikamentuak biriketako butxadura kronikoaren (BBK) mantentze-tratamenduan bronko-zabaltzaile gisa indikatuak daude.

Hala ere, bi sendagai hauen prezioa ez da berdina. Braltus®-ena bere erreferentziazko medikamentuarena baino 10 euro merkeagoa da. Hori dela eta, errekursoak beste zenbait tratamendu finantzatzera bideratu daitezke. Izan ere, konposizio bera eta prezio merkeagoa duten medikamentuen erabilerak Euskadiko Osasun Sistemaren jasangarritasunean eta botika berritzaileen sartze prozesuan laguntzen du.

Beraz, ikusita Spiriva®-n ordezkapenak tratamenduaren eraginkortasun eta segurtasunean eraginik ez duela eta kontuan izanik sisteman eragiten duen aurreztea, **Braltus® erabiltzea gomendatzen da tiotropio bromuroarekin tratamendua hasi behar duten pazienteetan.**

#### BIBLIOGRAFIA:

1. Ficha técnica **Braltus®**  
[https://www.aemps.gob.es/cima/dohtml/ft/80981/FichaTecnica\\_80981.html](https://www.aemps.gob.es/cima/dohtml/ft/80981/FichaTecnica_80981.html)
2. Ficha técnica **Spiriva®**  
[https://www.aemps.gob.es/cima/dohtml/ft/64796/FichaTecnica\\_64796.html](https://www.aemps.gob.es/cima/dohtml/ft/64796/FichaTecnica_64796.html)